

Konrado Mugertza jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Iosu Gangoiti jn.  
Javier Del Campo jn.  
Miren Izagirre and.  
Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pilar Ramírez and.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

## **07/13 IRIZPENA**

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 2007ko irailaren 13ko saiora bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Osoko Bilkura horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren Antolamendu Orokorra ezartzen duen Dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.  
Idazkari teknikoa.

## **AURREKARIAK**

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak lanbide heziketaren, kualifikazioen eta egiaztapenen sistema integrala antolatzen du, gizarte eta ekonomi eskaerei eraginkortasunez eta gardentasunez erantzuteko, hezkuntza modalitate desberdinen bidez.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak xedatzen du Gobernuak ezarriko dituela, Autonomi Erkidegoekin kontsultatu ondoren, lanbide heziketako ikasketen titulazioak eta horietako bakoitzaren curriculumaren oinarritzko alderdiak. Lege honek Lanbide Heziketaren alderdi orokorrak arautzen ditu V. Kapituluaren (39. artikulutik 47.era).

Abenduaren 15eko 1538/2006 Errege Dekretuak hezkuntza sistemako lanbide heziketa antolatzen du, aipatutako arauetara egokitu, eta lanbide heziketako titulu berrien egitura zehazten du; titulu horiek oinarritzat izango dituzte Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala, Europako Batasunak finkatutako gidalerroak eta gizartearen intereseko beste alderdi batzuk.

## **EDUKIA**

Dekretu proiektu honek 29 artikulua, 7 kapitulutik banaturik, xedapen gehigarri 1, xedapen iragankor 1, xedapen indargabetzaile 1 eta 2 azken xedapen ditu.

I. kapituluak (1. eta 2. artikulua) Dekretuaren helburua eta aplikazio eremua zehazten ditu, baita ere Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketako helburuak.

II. kapituluak (3. kapitulutik 5.era) Lanbide Heziketako tituluak zehazten ditu (Teknikaria eta Goi Mailako Teknikaria) eta ikasketa hauek erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloetan (4. artikulua) antolatuko direla arautzen du, eta lanbide moduluak eta beren ezaugarriak definitzen ditu (5. artikulua).

III. kapituluak (6. kapitulutik 11.era): 6., 7. eta 8. artikuluek Lanbide Heziketako eskaintza motak zehazten dituzte: osoa, partziala eta urrutikoa. 9. artikulua Teknikari eta Goi Mailako Teknikari tituluak lortzeko probak arautzen ditu; 10. artikulua tituluaren barruan gaitasun unitateei loturik dauden lanbide moduluen eskaintzari buruzkoa da. 11. artikulua lan esperientziaren bidez edo prestakuntza bide ez formalekin jasotako lanbide gaitasunen ebaluazioari eta onarpenari buruzkoa da.

IV. kapituluak (12. kapitulutik 16.era): 12., 13. eta 14. artikuluek LHko ikasketetara sartzeko modalitateak finkatzen dituzte. 15. eta 16. artikuluek, berriz, sarbide proben kalifikazioa eta haien balioa arautzen dituzte hurrenez hurren.

V. kapituluak (17. kapitulutik 21.era): 17. eta 18. artikuluek heziketa zikloen gutxienezko elementuak zehazten dituzte, baita ikastetxeak nola garatu behar dituen ere. 19., 20. eta 21. artikulua irakasle taldeaz, programazioaz eta metodologia didaktikoaz ari dira hurrenez hurren.

VI. kapituluak (22. kapitulutik 24.era) ebaluazioaren oinarriko alderdiak arautzen ditu: subjektuak eta xedea, ikasleak ebaluatzeko oinarriko irizpideak, ebaluazio saioak, eta prozesu honetatik ateratako dokumentazioa.

VII. kapituluak (25. kapitulutik 27.era) heziketa zikloetan onartua izateko, matrikulatzeko eta hurrengo mailara igarotzeko arauak zehazten ditu.

VIII. kapituluak (28. kapitulutik 29.era) heziketa zikloaren eta lanbide moduluen kalifikazioa arautzen du, baita baliokidetzeak ere.

Xedapen Gehigarri Bakarrak, berriz, gizarte bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonentzat egin litekeen Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalarekin lotutako Modulu Katalogoko heziketa moduluen eskaintza arautzen du.

Xedapen Iragankor Bakarrak xedatzen du indarrean atxikitzen duela lan esperientziaren bidez jasotako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta onartzeko ahalmena, harik eta Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren 8.3. artikulua onartzen duen prozedura onesten den arte.

Xedapen indargabetzaileak, berriz, arau hau onartutakoan indarrrik gabe geratzen diren dekretuen zerrenda dakar.

Lehen Azken Xedapenak arautegi garapena baimentzen du eta Bigarrenak araua indarrean noiz jarriko den zehazten du.

### **III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Aztergai dugun Dekretu proiektu honek EAEko Lanbide Heziketaren Antolamendu Orokorra ezartzen du, eta erreferentziatzat hartzen ditu Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa (LOE), honen garapena den 1538/2006 Errege Dekretua, eta Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoa.

Horrenbestez, indarrrik gabe geratzen dira irakaskuntza horien antolamenduari buruzko lehenagoko araudi osoa eta horietako tituluei buruzko arau guztiak, salbuespen batekin: lan esperientziaren bidez edo prestakuntza bide ez formalen bitartez jasotako lanbide gaitasunen ebaluazioari eta onarpenari buruzko xedapena, 70/2004 Dekretuaren 7. artikuluan jaso.

Lanbideetan jarduteko gaikuntza ematen duten irakaskuntzen esparru orokorrean, egiteko dago 2008-09 ikasturtean ezarriko diren Lanbide Kualifikazioko Programen antolamendua. Dekretu proiektu honek 13.3. artikuluan aipatzen ditu programa horiek, erdi mailara sartzeaz ari denean. Programa horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren barruan araututa daude LOE legean, eta 30.2. artikuluan, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalaren egungo egiturako 1. mailarekin lotzen ditu. Derrigorrezko modulu espezifikoez eta prestakuntza orokorreko moduluez gain, DBHko Graduatu titulua lortzeko moduluak eskaintzea izango da Lanbide Kualifikazioko Programen antolamendu berri honen berritasun nagusia.

Dekretu proiektu honen egitura eta antolaketa orokorrari erreparatzen badiogu, 1538/2006 Errege Dekretua erreferentziatzat hartuta, desberdintasun batzuk daude bi arau hauen artean, batzuk teknikoak dira, eta besteei buruz, berriz, balorazio bat egin daiteke. Hartara, zalantzan jar daiteke Errege Dekretuaren III. kapituluan “Lanbide Heziketako tituluen ebaluazioa eta ondoreak” izenburupean bateraturik agertzen dena hiru kapitulu desberdinetan banatzea: ebaluazioa, VI. kapituluan jasotzen dena; kalifikazioa, VIII. kapituluan baliokidetzeeekin eta salbuetsitakoekin batera jorratzen dena; eta hurrengo mailara igarotzeko baldintzak, VII. kapituluan onartua izateko eta matrikulatzeko baldintzekin batera lantzen dena. Gure iritzian egokiagoa da hiru kontzeptu horiek (ebaluazioa, kalifikazioa eta hurrengo mailara igarotzea), edo lehenengo biak, bederen, batera agertzea.

Curriculumak da Dekretu proiektu honek modu bereizgarrienean garatzen duen alderdia, horretarako, V. kapituluak erabiltzen du eta, lanbide titulazioen antolamendu erkidearen barruan, lanbide titulazio bakoitzeko curriculum partikularrek izan behar dituzten ezaugarri orokorrak finkatzen ditu bertan. Hartara, kapitulu horren hasieran (17. artikulua), gure ustez, deskribatu behar litzateke zein lege esparrutan gauzatuko den bertan xedatutakoa, zehazki, EAEko lanbide tituluetako curriculumak zehaztu ahal izateko falta den estatuko zein autonomia erkidegoko araudiaren aipamena.

Zehazki, Xedapen Indargabetzailean xedatzen da Lantokiko Prestakuntza modulua arautzen duen 156/2003 Dekretua indarririk gabe geratuko dela 2008-09 ikasturteko aurrera, baina justifikazio-memorian ez da jasotzen hura ordezkatzeko duen beste araudi baten beharra dagoenik. Kontseilu honen iritzian, gainerako moduluetan gertatzen den bezala, Dekretu proiektu honen xedea irakaskuntza hauen araudi markoa ezartzea da eta, horrenbestez, 156/2003 Dekretua indarririk gabe utzi baino lehen prest eduki behar da haren ordezkia.

Dekretu proiektu honek gehien nabarmentzen duen bigarren alderdia ebaluazioa da, izan ere, irakaste-jardueraren ebaluazioa jasotzen du (autoebaluazioa edo barne ebaluazioa) 22.1. artikuluan, eta hori positibotzat jo behar dugu.

Aitzitik, 1538/2006 Errege Dekretua aipatzen jarraitu behar dugu, izan ere, honen kapitulu batek ez du kidekorik Dekretu proiektu honetan, ikasleei informazioa eta orientabidea eskaintzeko sistemari buruzkoak, alegia. Kapitulu honetan Administrazioei esleitzen zaizkien xedeei erreparatuta, ulertu daiteke EAEko hezkuntza Administrazioa ahalegin jarraitua egiten ari dela irakaskuntza hauei buruzko informazioa zabaltzeko eta mezu positiboak helarazteko, ikasleek ikasketa hauek aukera ditzaten. Hortaz, Kontseilu honen iritzian interesgarria litzateke atal hau jasotzea Dekretu honen artikuluetan.

Konparazio honekin amaitzeko, agertzen ez den beste kapituluak Lanbide Heziketa eskaintzen duten ikastetxeen tipologiari buruzkoa da. Espero dugu Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza Administrazioak gai hau jasoko duela orain aztertze fasean dagoen EAEko Eskola Mapa berriaren arauetan.

Hirugarren puntu bat ere kritikatzeko modukoa izan daiteke, hau da, “gaitasun” hitza behin baino ez da agertzen, aipamen partzial moduan, curriculumak eta programazioa jorratzen dituen V. kapitulu osoan, alta, gaitasunak eskuratzea eta ezagutzea lanbide heziketaren giltzarria da, beste kapitulu batzuetan islatu den bezala, batez ere, antolamenduari buruzkoan, izan ere, 1538/2006 Errege Dekretutik hartutako adierazpenak jasotzen dira bertan. Une honetan Oinarrizko Irakaskuntzetako curriculumek gaitasunak eskuratzea hartzen dute erreferentziatzat, hortaz, egokia bide da hitz hori 17. eta 20. artikuluetan agertzea, curriculumak osatzen duten elementuei eta programazioan jaso behar diren alderdiei buruzkoak baitira hurrenez hurren.

Beste alde batetik, 5.7. artikuluan “hizkuntzako lanbide modulua” islatzen da, eta Errege Dekretutik hartu denez, atzerriko hizkuntza dela aditzera ematen du. Lanbide

Heziketako ikasketetan euskaraz oso gutxi irakasten denez, eta kontuan izanik laneratzeko euskara jakitea garrantzitsua dela, batik bat titulazio batzuetan, horren inguruko helbururen bat finkatu behar litzateke, behintzat atzerriko hizkuntzarentzat jasotzen den hein berean.

Azkenik, helduentzako heziketa zikloen eskaintza partziala enuntziatu baino ez da egiten 7. artikuluan, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak geroago arautuko duela dio. Eskaintza honen hartzaileak gehienetan lan merkatuan daudenez, interesgarria litzateke aipatzea eskaintza hau lanarekin bateragarriak diren ordutegietan egin behar litzatekeela.

Gainerako iritziak partikularrak dira, eta testuaren ulergarritasuna hobetzeko edota kontraesan txikiak –batzuetan akats xumeak baino ez direnak- konpontzeko dira. Artikulu hauetan jasotzen dira:

**7. artikulua:** Gaztelaniazko bertsioan “Ley de Ordenación de Educación” dioen tokian “Ley Orgánica de Educación” (LOE) esan behar du (zehazki 66.4. artikuluan)

**9.c artikulua:** “5. artikuluko 6. atala” jarri beharrean, egokiagoa da “5. artikuluko 5. eta 6. atalak”.

### **17.1. artikulua**

- Terminologia bateratzea iradokitzen dugu, hortaz, kasu guztietan gaztelaniazko bertsioan “currículo” jarri behar litzateke, kapituluko izenburuan bezala eta berriki Oinarrizko Irakaskuntzen curriculumari buruzko Dekretuan egin den bezala.
- “EAerako ezarritako heziketa zikloen curriculumak” jarri beharrean, egokiagoa da “EAerako ezarriko diren heziketa zikloen curriculumak”, oraindik zehazteko daude eta.
- Beharbada, a) atalean, gaztelaniazko bertsioan, “Objetivos y módulos profesionales que constituyen el ciclo” (“Helburuak eta zikloa osatzen duten lanbide moduluak”) hurrenkera baino egokiagoa da: “Objetivos del ciclo formativo y módulos profesionales que lo componen” (Heziketa zikloaren helburuak eta zikloa osatzen duten lanbide moduluak”).
- d) atalean, “Ordu kopurua lanbide modulu bakoitzean” esaldiaren ordez “Lanbide modulu bakoitzeko ordu kopurua” jarri behar litzateke.
- Azken paragrafoan, bereizi egiten dira 1.c) atala eta besteak. Lehenengoa edukiei buruzkoa da eta ikastetxeak eduki horiek garatu ahal izango dituela dio. Gainerako paragrafoez, berriz, “artikulu honetan zehaztutako baldintzen eta kopuruen arabera aplikatuko direla” dio, eta horrek ez du zentzurik zeren eta artikulu honetan ez baita inon esaten zein baldintzatan aplikatuko diren eta are gutxiago zein kopurutan. Esan

nahi badu ikastetxeek ez dutela esku hartu behar beste atal horietan, orduan, atal horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautuko dituela jarri behar litzateke.

- Ikastetxeak garatu ditzakeen curriculumeko elementuei gagozkiela, b) atalean esaten da lanbide moduluak ebaluatzeko irizpideak bakarrik Hezkuntza Administrazioak arautuko dituela. Baina lanbide modulu bakoitzeko programazioa zehazten duen 20.1. artikuluan irakasle taldeari esleitzen dio modulua ebaluatzeko irizpideak (e atala) eta unitate didaktiko bakoitza ebaluatzeko irizpideak (c.3 atala) finkatzeko zeregina. Hortaz, 17.b) atalean esandakoa mugatu behar litzateke, eta horrela geratuko litzateke: “b) lanbide moduluen helburuak eta ebaluatzeko irizpide orokorrak” edo antzeko zerbait.

### ***17.2. artikulua***

- Idazkera hobetzea proposatzen dugu: “garapen ekonomiko eta sozialaren premiak eta egitura...” (gaztelaniazko bertsioan: “las necesidades de desarrollo económico y social, y la estructura...”, hau da, “de” preposizioa kenduta).
- Era berean, gaztelaniazko bertsioan “todo ello para” (hori guztia... -tzeko) dioen tokian “con la finalidad de” (...-tzeko helburuarekin ) jarri behar litzateke.

***19.1 artikulua:*** 2. paragrafoan hiru salbuespen dituen arau bat jasotzen da. Hobeto uler dadin, idatz zati desberdinetan banatu behar lirateke (a, b, c) hiru kasuok, edo behintzat “de” preposizioaz bereizirik gaztelaniazko bertsioan: “...con excepción de aquellos en los que se contemple..., de los que se realicen por oferta parcial y, si procede, de los de...”.

***19.2 artikulua:*** 2. paragrafoan, gaztelaniazko bertsioan berriro ere, hobeki adierazita dago “que son” kentzen bada: “...entre los que imparten módulos profesionales transversales a diferentes ciclos...”.

### ***19.3. artikulua***

- Bigarren paragrafoan, “erlazioan eta koordinazioan” esamoldea erredundantea da, izan ere, koordinazioa erlazio mota bat da. Errazena bi izen hauek kentzea da, ekin-tza aditzean adierazirik baitago, eta honela geratuko litzateke gaztelaniazko bertsioan: “...coordine las acciones docentes de dicho módulo con el Instructor...” (“... modulu horretako irakaste-ekintzak irakaslearekin koordinatu ditzala...”).
- Beste alde batetik, “Tutoreak... garatuko du eta, egoki balitz, koordinatu egingo du...” esapideak esan nahi du beti garatu behar duela, eta koordinatu, berriz, kasu batzuetan bakarrik. Baina enpresako irakaslearekin koordinatzeko lana haren egitekoaren bereizgarria da, hain zuzen ere, beraz, ezerk ez du baldintzatu behar. Beste alde batetik, irakaste-ekintzak garatzeak irakastea esan nahi du edo, behintzat, ekin-tza horietan parte hartzea, alta, Dekretuak jarraian zehazten du enpresako prestakun-

tzaren arduraduna bertako irakaslea dela. Horrenbestez, paragrafo hau honela idazteko proposatzen dugu:

*“Lantokiko Prestakuntza moduluko tutoreak koordinatuko ditu modulu horretako irakaste-ekintzak bertako irakaslearekin, bera baita lantokiak jarritako espezialista eta ikasleak bertan jasotzen duen prestakuntzaren arduraduna”*

- Dekretu proiektu honetan “tutore” kontzeptua jasotzeko moduz beste bi aipamen daude 20.3. eta 24.1. ataletan.

### **20.1. artikulua**

- 2. paragrafoan, errepikapen bat dago: “garatuko diren jarduerak eta ekintzak...”. Aski da lehenengoa jartzea.
- Koma bat sobra da: “..., hala nola irizpideak...”.
- Programazioko alderdiei dagokienez,
  - a) atalean, kontzeptuzko xehetasun bat: Unitate didaktikoez osatu egiten dute lanbide modulua, ez dute modulua garatzen laguntzen.
  - c.3) atalean, irakaskuntza jarduerak eta ikaskuntza jarduerak batera programatzen dira, eta ebaluazio jarduerak bestelakoak dira. Hortaz, honela idaztea proposatzen dugu: “irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak eta ebaluazio jarduerak...”.
  - Esan dugun bezala, e) atalak 17.1. artikulua urratzen du.

**20.2. artikulua:** Lehen paragrafoaren hasieran (“irakasle taldeak beren ardurapeko taldea osatzen duten ikasle ikasketa premietara egokituko dituzte programazioak”) errepikatu egiten da 20.1. artikuluko 1. paragrafoaren amaieran esandakoa: “heziketa zikloko irakasle taldeko irakasle bakoitzari dagokio programazio erkidea egokitzea eta testuinguruan jartzea programazio hori zein taldetan garatuko den, betiere haien egoera eta ezaugarriak nolakoak diren kontuan hartuta”.

**20.3. artikulua:** Paragrafoa honela hasten da: “Heziketa ziklo bati dagokion ikasle talde bakoitza...” eta horrek ez du behar bezala argitzen heziketa ziklo bakoitza ikasle talde batzuek osatzen dutela. Hobeki legoke honela: “Heziketa ziklo bateko (edo “batean sartuta dagoen”) ikasle talde bakoitza...”, izan ere, tutorea taldekoa da, ezen ez ziklokoa.

**22.1. artikulua:** Irakasleek ebaluatu beharrekoen artean beren irakaste-jarduera bera ere sartzen dela esaten da, eta zehaztu behar litzateke egiteko hau Hezkuntzako Ikuskatzailetzarekin partekatzen dutela, horretarako, amaieran hau gehitu liteke: “... hori guztia, Hezkuntza Ikuskatzailetzak bereak dituen egitekoen kalterik gabe (LOE legearen 151. artikulua eta Euskal Eskola Publikoaren Legearen 25.2. artikulua)”.

### **23.2. artikulua**

- Komeni da zehaztea noiz baloratuko den Proiektuaren modulua: goi mailako zikloetan.
- Beste alde batetik, ez da zentzuzkoa Lantokiko Prestakuntza modulua bereziki baloratzea, bete beharreko baldintza baita modulu horretan balorazio positiboa izatea (artikulu honetako 5. atala) eta kalifikazioa “gai” edo “ez gai” baino ezin izan daiteke (3. atala).

**24.1. artikulua:** Berriro aipatzen da tutorea, baina “zikloko tutoreaz” ari dela ematen du: “... zikloko irakasle taldearen bilerak, tutorea antolatzaile edo buru dela...” (gaztelaniaz genero komunztadura zuzendu behar da: “organizadas y presididas”). Irakasle talde bakoitzak tutore bat duela ulertzen bada, honela zehaztu beharko da: “... zikloko irakasle taldearen bilerak, zikloa osatzen duten taldeetako tutoreak antolatzaile edo buru direla...”.

**24.5. artikulua:** Esaldi honetan ez da ulertzen b) atala: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak arautuko du ebaluazio prozesua hezkuntza sistemako Lanbide Heziketan eta berak zehaztuko ditu, besteak beste, “b) ebaluazio saioen kopurua eta haien izaera edo helburuak”. Beharbada deialdi edo modalitate desberdinei buruz (ohikoak,...) ari da.

### **25.2. artikulua**

- Gaztelaniazko bertsioan hobeki ulertuko litzateke bi artikulua jarrita: “..., los criterios..., el porcentaje de plazas...”.
- Gaztelaniazko bertsioan genero komunztadura falta da: “el porcentaje de plazas reservada”.

**26.2. artikulua:** “Eskaintza osoan” baino egokiagoa da “Eskaintza osoko modalitatean” edo “Eskaintza osoko kasuetan”. Eta gauza bera “Eskaintza partzialean” jartzen duen tokian.

**27.2. artikulua** (27.6 zenbakiarekin agertzen da): Salbuespen bat ezarri behar da: 1538/2006 Errege Dekretuaren 15.4. artikulua gehienez bi deialdi finkatzen ditu Lantokiko Prestakuntza modulurako.

### **Xedapen Gehigarri Bakarra**

- Lehenengo kasuan, iruditzen zaigu egokiago dela “eskaintza arautuko du” jartzea oraingo idazkera baino: “balizko eskaintza arautuko du”, izan ere, aginduzkoa da



5/200 Legearen 12. artikulua araberan: "... hezkuntza premietara egokituko dira...".

- Paragrafo berean, gaztelaniazko bertsioan, "discapitados" (minusbaliatuak) jar-tzen duen tokian hobe da "personas con discapacidad" (minusbaliotasunen bat duten pertsonak) jartzea.

**Xedapen Iragankor Bakarra:** Komenigarria da atxikitzen den eskumena jasotzen duen araua aipatzea, horretarako, paragrafoaren amaieran hau gehitu behar litzateke: "70/2004 Dekretuaren 7. artikuluan zehaztutakoaren araberan"

***Xedapen Indargabetzaile Bakarra***

- "5/2002 Legearen 83. artikulua" dioen tokian, 8.3. artikulua da
- Azken paragrafoan, beste joskera bat proposatzen dugu gaztelaniazko bertsioan: "Queda derogado a partir del curso 2008/2009 el Decreto 156/2003, de 8 de julio,..." (2008-09 ikasturtetik indarrrik gabe geratuko da 156/2003 Dekretua, uztaile-ren 8koa,...).

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko urriaren 4a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia

KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.